

GALINDOKO HUA-KO NAHASTEKO ETA DOSIFIKATZEKO INSTALAZIOEN MANTENTZE-ZERBITZUA

3. dokumentua Preskripzio tekniko partikularren agiria

1. XEDEA

Preskripzio tekniko partikularren agiri (PTPA) honen xedea da GALINDOKO HUA-KO NAHASTEKO ETA DOSIFIKATZEKO INSTALAZIOAK MANTENTZEKO ZERBITZUA egiteko gida gisa erabiliko diren kondizio teknikoak definitzea.

2. DESKRIBAPEN OROKORRA

Hondakin-urak arazteko eta lortutako lohiak errausteko prozesuaren barruan, erreaktiboak nahasteko eta dosifikatzeko prozesu osagarriak daude, eta prozesu nagusiak errazten dituzte. Produktu horiek ezaugarri nahiko korrosiboak eta oldarkorak izaten dituzte nahasketen edo beharapenen aurretik, eta enpresa espezializatuek mantentze-lanak egin behar dituzte, elementuen bizitza baliagarria luzatzeko.

Era berean, instalazio horien erabilgarritasuna bermatzeko, beharrezkoa da matxurak azkar konpontzen lagunduko duten zenbait ordezkoko pieza kritiko hornitzea.

3. ZERBITZUAREN IRISMENA

3.1 EGIN BEHARREKO LANA

Mantendu beharreko instalazioek ekipo hauek dituzte:

KOD.	EKIPOA	MARKA	MODELOA	KANT.	PRODUKTUA	INSTALAZIOA
1	PONPA	MILTON ROY	DMR 13 ZB	2 UNIT.	APAR-KONTRAKOA	HIRUGARREN TRATAMENDUA
2	PONPA	MILTON ROY	GA45P4T3LS	4 UNIT.	SODIO HIPOKLORITOA	HIRUGARREN TRATAMENDUA
3	PONPA	JOHNSON PUMP	FIP50SI-BSP 02 M01 P100	1 UNIT.	APAR-KONTRAKOA	HIRUGARREN TRATAMENDUA
4	PONPA	MILTON ROY	GM500P50Q3	4 UNIT.	SODIO HIPOKLORITOA	TRATAMENDU BIOLOGIKOA
5	PONPA	MILTON ROY	GM500P50Q3	2 UNIT.	ALUMINIO POLIHIDROKLIKORUROA	TRATAMENDU BIOLOGIKOA
6	PONPA	MILTON ROY	GM500S50N3	4 UNIT.	SODA	KE-GARBIKETA
7	PONPA	TECNIUM	BNBKK 32.125	1 UNIT.	SODIO HIPOKLORITOA	KE-GARBIKETA
8	PONPA	TECNIUM	BHCKK 5.20	1 UNIT.	UR AMONIAKALA (% 20-% 30)	KE-GARBIKETA
9	PONPA	MILTON ROY	GA45F4N1LSZ	9 UNIT.	UR AMONIAKALA (% 20-% 30)	KE-GARBIKETA
10	DOSIFIKAGAILUA	DMT	DPS-350	1 UNIT.	POLIELEKTROLITOA	LOHIEN DESHIDRATAZIOA
11	IRABIAGAILUA	MILTON ROY	VRP4071S140/00P00	2 UNIT.	POLIELEKTROLITOA	LOHIEN DESHIDRATAZIOA
12	BALBULA	MILTON ROY	PIC DN 125 AA	2 UNIT.	LOHIAK	LOHIEN DESHIDRATAZIOA
13	BALBULA	MILTON ROY	PIC DN 100 AA	2 UNIT.	LOHIAK	LOHIEN DESHIDRATAZIOA
14	BALBULA	MILTON ROY	PIC DN 80 AA	2 UNIT.	LOHIAK	LOHIEN DESHIDRATAZIOA
15	BALBULA	MILTON ROY	PIC DN 65 AA	2 UNIT.	LOHIAK	LOHIEN DESHIDRATAZIOA
16	BALBULA	MILTON ROY	PIC DN 50 AA BALBULA	2 UNIT.	LOHIAK	LOHIEN DESHIDRATAZIOA
17	BALBULA	MILTON ROY	PIC DN 20 AA BALBULA	2 UNIT.	LOHIAK	LOHIEN DESHIDRATAZIOA
19	PONPA	INGERSOLL-RAND	66605J-344	4 UNIT.	AZIDO KLORHIDRIKOA	ERREAKTIBOEN DEPOSITUA
20	MOTELGAILUA	YAMADA PUMP	AD10PE	2 UNIT.	AZIDO KLORHIDRIKOA	ERREAKTIBOEN DEPOSITUA
21	MOTELGAILUA	YAMADA PUMP	AD40PE	2 UNIT.	AZIDO KLORHIDRIKOA	ERREAKTIBOEN DEPOSITUA



KOD.	EKIPOA	MARKA	MODELOA	KANT.	PRODUKTUA	INSTALAZIOA
22	IRABIAGAILUA	MILTON ROY	EA-0,75-100-600	2 UNIT.	AZIDO KLOORHIDRIKOA	ERREAKTIBOEN DEPOSITUA
23	BALBULA	MILTON ROY	ST1/2V PP/FPM 1/2"	3 UNIT.	AZIDO KLOORHIDRIKOA	ERREAKTIBOEN DEPOSITUA
24	ERROTAMETROA	STUBBE	DFM 350 DN40 200-2000L	3 UNIT.	AZIDO KLOORHIDRIKOA	ERREAKTIBOEN DEPOSITUA
25	POLYPACK	POLITECH	11X1000 MOTA	1 UNIT.	POLIELEKTROLITO PRESTATZAILEA	HIRUGARREN TRATAMENDUA
26	PONPA	INGERSOLL-RAND	PD20P-FPS-PTT	1 UNIT.	FP AZIDOA	EHUN-GARBIKETA
27	PONPA	MILTON ROY	GA170P6P3	2 UNIT.	HIPOKLORITOA	LAMIARANGO HUA
28	PONPA	PROMINENT	GAMMA X-A	2 UNIT.	O2 DOSIFIKAZIOA	ERREAKTIBOEN 3. LABEA
29	PONPA	GRUNDFOS	DME 375	1 UNIT.	SODA	LABEAK
30	PONPA	ALBIN	ALH05-3-VF	3 UNIT.	APAR-KONTRAKOA	HIRUGARREN TRATAMENDUA
31	PONPA	STUBBE	SHM VT75 40-40L	2 UNIT.	SODA HIDROXIDOA	LAMIAREN
32	PONPA	STUBBE	SHM VT110 40-40L	2 UNIT.	ALUMINA SULFATOA	HIRUGARREN TRATAMENDUA
33	PONPA	DMT	V6-3L	1 UNIT.	O2 DOSIFIKAZIOA	3. LABEA
34	BALBULA	STUBBE	DHV-712R DN25	3 UNIT.	ALUMINA SULFATOA	HIRUGARREN TRATAMENDUA
35	BALBULA	STUBBE	KUGELHAHN C16 DN100	2 UNIT.	HUSTUBIDEA B. Nag.	HIDROPRENTSA PRIMARIOA
36	PONPA	MILTON ROY	LMI C923	2 UNIT.	YARA OXIDIZER/NUTRIOX	USAINAK I
37	BALBULA	STUBBE	MVT310 DN20	2 UNIT.	POLIELEKTROLITO	HIRUGARREN TRATAMENDUA
38	BALBULA	STUBBE	MVT310 DN25	2 UNIT.	ALUMINA SULFATOA	HIRUGARREN TRATAMENDUA
39	PONPA	MILTON ROY	GA10P1T3LS	3 UNIT.	SODIO HIPOKLORITOA	HIRUGARREN TRATAMENDUA
40	PONPA	PERIBEST	I12	2 UNIT.	SODIO HIPOKLORITOA	HIRUGARREN TRATAMENDUA
41	PONPA	PERIBEST	I17	1 UNIT.	UR UHERRA	ERRIBERAKO TURBIDIMETROA

Lanak garatzeko, adjudikaziodunak ekipo bakoitzean ondorengo ordezkoko pieza originalak hornitu eta ordeztu beharko ditu, fabrikatzaileak zehaztutako mantentze-planari jarraikiz.

PTPA honi dagokion hornidura honako artikulua hauek osatuta egongo da:

KOD.	Artikuluaren izena
1	PIC DN 020 MILTON ROY-RAKO URRADURA-KONTRAKO GOMAZKO MAHUKA
2	PIC DN 50-65 MILTON ROY-RAKO URRADURA-KONTRAKO GOMAZKO MAHUKA
3	PIC DN 100 MILTON ROY-RAKO URRADURA-KONTRAKO GOMAZKO MAHUKA
4	PIC DN 125 MILTON ROY-RAKO URRADURA-KONTRAKO GOMAZKO MAHUKA
5	DOSAPRO MILTON ROY DMR 13 ZB POS:8 APAR-KONTRAKO PONPAREN XURGATZEKO BALBULA
6	DOSAPRO MILTON ROY DMR 13 ZB POS:9 APAR-KONTRAKO PONPAREN BULKATZEKO BALBULA
7	MILTON ROY PIC DN 65 BALBULA URRADURA-KONTRAKO MAHUKAREKIN
8	DOSAPRO MILTON ROY GA45F4N1LSZ AMONIAKO DOSIFIKAZIO-PONPAREN POS:45 MINTZA
9	AURREKLORAZIOKO DOSAPRO MILTON ROY GA45P4T3LS DOSIFIKAZIO-PONPA PVDF/PTFE 4.0 MINTZA
10	"ADAMS" R 1/4" LUBRIKAZIO-ONTZIAK
11	BURGMANN DN 33 MG1/33-G6 Q1Q1VGG ITXITURA MEKANIKOA
12	BURGMANN DN 55 MG1/55-G6 Q1Q1VGG ITXITURA MEKANIKOA
13	BURGMANN H75S2/43 ITXITURA MEKANIKOA



KOD.	Artikuluaren izena
14	OLIO ALDEKO DN-65 MG1/65-G6 AQ1PGG BURGMANN ITXITURA MEKANIKOA
15	UR ALDEKO DN-65 MG1/65-G6 Q1Q1VGG BURGMANN (BUKA22- 05/145) ITXITURA MEKANIKOA
16	BURGMANN MG1/40-Z ITXITURA MEKANIKOA
17	BURGMANN H12N/35-E11-L AQ1EGG ITXITURA MEKANIKOA, MTC D50/15A-3.1-20.62 H12N/35 E11 L PONPA
18	BURGMANN H12N/35-E11-R AQ1EGG ITXITURA MEKANIKOA, MTC D50/15A-3.1-20.62 H12N/35 E11 R PONPA
19	BURGMANN MG1/55-G4 ASPGG ITXITURA MEKANIKOA
20	BURGMANN MG1S3/33-G60 Q1Q1PGG ITXITURA MEKANIKOA
21	AURREKLORAZIO TERTZIARIOKO DOSAPRO MILTON ROY GA45P4T3LS AH. MAX 50 l/h P MAX 10 l/h DOSIFIKAZIO-PONPA
22	APAR-KONTRAKO DOSAPRO MILTON ROY DMR MODELOKO 13 ZB ahal.hid.: 8,2 L/H Pmax:10 BAR PONPA
23	OSAPRO MILTON ROY GA45F4N1LSZ AMONIAKO DOSIFIKAZIO-PONPA ETA KONEKIO-OSAGARRIAK
24	MAXROY RBxxx7P/TS XURGATZEKO BALBULA
25	MAXROY RBxxx7H/KS XURGATZEKO / BULKATZEKO BALBULA
26	MAXROY RBxxx7P/xxSS XURGATZEKO / BULKATZEKO BALBULA
27	MAXROY RBxxx7P/xxPTFE XURGATZEKO / BULKATZEKO BALBULA
28	BULKADA-MOTELGAILUA erref.UO30A01E1-PP P max: 10 BAR, Taratze-presioa: 0,8 BAR
29	MILTON ROY KONTRAPRESIO BALBULA Tipoa: DHV/717R PN/DN 10/25 erref.12066304007
30	MILTON ROY KONTRAPRESIO BALBULA Tipoa: 718 PN/DN 10/20 erref.1371368821
31	ERAGINGAILU PNEUMATIKOA, MARKA: AIR TORQUE VALVE ACTUATOR ATTACHMENT:F07/F10-N-D-22 TYPE AT300 S12A MAX OUT TORQUE AT 6 BAR MAX PRESSURE 8 BAR
32	DOSSAPRO MILTON ROY VRP4071S140/00P00 HERDOILG. IRABIAGAILUA
33	MILTON ROY DMR 13 ZB BBA-RAKO BURUA. Ah.max.: 8 l/h P.max.: 10 Bar
34	YAMADA PLUMB TYPE AD-40PE PONPAREN KARKASA; MAX AIR 0,7 SERIAL 7537 YEAR 2015
35	DOSAPRO MILTON ROY GA10P1T3LS DOSIFIKAZIO-PONPA Ah.max.: 10,00 L/h P.max.: 12,00 BAR
36	MILTON ROY DMR 11mm BBA-RAKO JUNTURA SORTA (2.POS.)
37	WILO ITXITURA KITA ERREF.: 6065498
38	MILTON ROY DMR 13 ZB BBA-RAKO JUNTURA SORTA. Ah.max.: 8 l/h P.max.: 10 Bar
39	MAXROY RB144x7x IRRISTAILUKO ORDEZKO PIEZEN SORTA
40	MAXROY RBxxx7x ESKUZ DOITZEKO AGINTEA
41	YAMADA PLUMB TYPE AD-40PE PONPAREN KARKASARAKO MINTZAK; MAX AIR 0,7 SERIAL 7537 YEAR 2015
42	MILTON ROY DMR 11mm BBA-RAKO PISTOIA (3.POS.)
43	MILTON ROY DMR 13 ZB BBA-RAKO PISTOIA. Ah.max.: 8 l/h P.max.: 10 Bar
44	MILTON ROY GA45P4T3LS PONPAREN AURREKO ESTALKIA Ah.max: 50 l/h P.max: 10 l/h (balbulak barne)
45	MILTON ROY GA 45 P4 T3 LS PONPARAKO MINTZ-EUSKARRIAREN AURREKO ESTALKIA Ah.max.: 50 l/h P.max.: 10 l/h
46	DOSAPRO MILTON ROY-REN MOTORDUN BBA-KO DORRETIXOA EDO LOTURA-BRIDA; MB.90.S.70.P.5/9.S; Ah.max.: 764 l/h Ah.min.:5 l/h Zk.: 86.42.0135.01.05
47	DOSAPRO MILTON ROY BBA-RAKO XURGATZEKO BALBULA. DMR Ø 11.



KOD.	Artikuluaren izena
48	STUBBE MOD DHV-712R PRESIOARI EUSTEKO BALBULA. ZK.: 146352 PN/DN 10/20 RANGE 0,3-10 BAR FA 14-77515
49	M.ROY PRESIOARI EUSTEKO BALBULA MILTON ROY 1100 PVC/PTFE 1" APAR-KONTRAKO DOSIF. BALB.
50	PIC DN80 PN10 BALBULA C/B URRADURA-KONTRAKO GOMA
51	RB144x7x MURRIZTE-MULTZOA
52	RB144x7x POS.037 AZKOIN ESZENTRIKOA
53	MAXROY RBxxx7 Pos. 068 PONPA-ARDATZA
54	LEHEN MAILAKO OFIZIALAREN ESKULANA
55	INGERSOLL RAND ERAZTUN-MINTZ. PONPA PNEUMATIKOA. ERREF.: PD20P-FPS-PTT
56	INGERSOLL RAND ERAZTUN-MINTZ. PONPA PNEUMATIKOA. ERREF.: 666053-344
57	YAMADA AD-10PT PULTSAZIO-MOTELGAILUA
58	ARGAL PDA 150 PULTSO-MOTELGAILURAKO TEFLOIZKO MINTZA
59	MILTON ROY GA170P6P3 PONPA; 3,5 bar; 170 l/h
60	MILTON ROY DPS-350 POLIELEKTROLITO-DOSIFIKAGAILUA
61	GAMMA X-A PROMINENT PONPA; ERREAKTIBOEN 3. LABEA
62	GRUNDFOS DME 375-10AR-PP/E/G/F-312A2F PONPA; SODA-LABEAK
63	BERNARD SQ10 ERAGINGAILU ELEKTRIKOA 0,1 kW 400 V 2,5 b/min 1/4 BIRA
64	PICK TOREX S.P.A. BALBULA TYPE VM OPERATING PRESURE MAX 3,5 BAR CONTROL PRESURE MAX 6 BAR DIFERENTIAL PRESURE 2 TO 2,5 BAR YEAR 2012 BATCH ZK:: 15-1112-45 3QCF10AA201
65	BURGMANN HJ977TN/33-78 Q12Q12VGG1 ITXITURA MEKANIKOA
66	BURGMANN MG1/90 (BT220810) ITXITURA MEKANIKOA
67	BURGMANN MG1S 15/100 (BT220810) ITXITURA MEKANIKOA
68	GA45P4T3LS PONPARAKO 370 ERREF.EKO GORPUTZ DOSIFIKATZAILEA
69	MILTON ROY BALBULA ST1/2V PP/FPM 1/2" BALTSETAKO HIPOKLORITOA DOSIFIKATZEKO
70	DOSAPRO MILTON ROY GA10P1T3LS MOD.KO DOSIFIKAZIO-PONPA Ah.max.: 10,00 L/h P.max.: 12,00 BAR KLORAZIO OSTEKO
71	MG1-G60 55 Q1Q1VGG ITXITURA MEKANIKOA
72	BURGMANN H75N/33-00 AQ1EGG ITXITURA MEKANIKOA
73	KLORAZIO OSTEKO GA10P1T3LS DOSIFIKAZIO-PONPAREN PVC/PTFE 1.0 MINTZA
74	PIC DN 80 URRADURA-KONTRAKO GOMAZKO MAHUKA
75	ALBIN ALH05-3-VF PONPA 8 bar 9,8 m 20,4 l/h 22 b/min LEHENERATUTA - "STANDARD" KONPONKETA (HAU BARNE: MAHUKA, JUNTURA, LUBRIFIKATZAILEA ETA ESKULANA)
76	DOSAPRO SERIE GM500P50Q3 HIPOKLORITOA DOSIFIKATZEKO PONPA LEHENERATUTA - "STANDARD" KONPONKETA (HAU BARNE: MINTZA, SOUFFLET BALBULEN BARNEKOAK, JUNTURAK, ERRODAMENDUAK, OLIOA ETA ESKULANA)
77	STUBBE PRESIOARI EUSTEKO BALBULA; DHV-712R DN25 MD. KLORAZIO AURREKO
78	MILTON ROY PONPA, B123-398N3 MODEL.
79	STUBBE KUGELHAHN C16 DN100 PN10 BOLA-GILTZA, PVC-U FPM BRIDAK
80	WILO Q07BSM PONPA URPERAGARRIA
81	1 eMG1/25-G4 B/ESIC-Q7PGG/Y10 ITXITURA MEKANIKOA
82	1 eMG1/22-G6 ESIC-Q7/ESIC-Q/ VGG/Y10 ITXITURA MEKANIKOA
83	PROMINENT 802279 NIBELA



KOD.	Artikuluaren izena
84	77352 - BOLA-KARTUTXOA MULTZOA
85	77385 - BALBULA-GORPUTZAREN OSAGARRIAK
86	MILTON ROY LMI C923 DOSIFIKAZIO-PONPA YARA OXIDIZER/NUTRIOX-ERA KO
87	EDOSY MOTAKO KONTRAPRESIO-SISTEMA
88	DOSIFIKAGAILU PERISTALTIKORAKO TUBING VITON
89	SHM - VT 75 40-40L PONPA sodio hidroxidorako
90	SHM VT 110 40-40L PONPA alumina sulfatorako
91	STUBBE MVT PVC-U-PTFE DN20 MINTZAREN ERREGULAZIO-BALBULA
92	STUBBE MVT PVC-U-PTFE DN25 MINTZAREN ERREGULAZIO-BALBULA
93	MINTZAREN + BALBULA-BARNEKOEN KITA GM500P50Q3-RAKO
94	MINTZAREN + BALBULA-BARNEKOEN KITA GM500S50N3-RAKO
95	POLYPACK-ERA KO DPS 320 HAUTS-DOSIFIKAGAILUA, 11X1000 MOTA
96	N4 A304L TORLOJU DOSIFIKATZAILE HUTSA + POLYPACK-ERA KO HODIA, 11X1000 MOTA
97	VR4B-020/055/E0.37-028/A00 POLYPACK-ERA KO 1. IRABIAGAILUA, 11X1000 MOTA
98	VR4A-020/055/E0.37-028/A00 POLYPACK-ERA KO 2. IRABIAGAILUA, 11X1000 MOTA
99	POLYPACK-ERA KO N4 ERRESISTENTZIARA EGOKITZEKO ZORROA, 11X1000 MOTA
100	POLYPACK-ERA KO NIBEL-SENTSORE ULTRASONIKOA, 11X1000 MOTA
101	POLYPACK-EN UR-SARRERARAKO EMARI-NEURGAILUA, 11X1000 MOTA
102	POLYPACK-EN UR-SARRERARAKO ELEKTROBALBULA, 11X1000 MOTA
103	POLYPACK-EN UR-SARRERARAKO MANOMETROA, 11X1000 MOTA
104	POLYPACK-EN UR-SARRERARAKO PRESOSTATO A, 11X1000 MOTA
105	POLYPACK-EN UR-SARRERARAKO PRESIOA JAISTEKO BALBULA, 11X1000 MOTA
106	POLYPACK-EN UR-SARRERARAKO Y IRAGAZKIA, 11X1000 MOTA
107	POLYPACK-EN UR-SARRERARAKO BALBULA ERREGULATZAILEA, 11X1000 MOTA
108	POLYPACK-ERA KO KAXA ELEKTRIKOA, 11X1000 MOTA
109	X GAMMA.RAKO MANTENTZE-KITA
110	MINTZAREN + BALBULA-BARNEKOEN KITA GA170P6P3-RAKO
111	SHM VT 75 40-40L-ERA KO MANTENTZE-KITA
112	SHM VT 110 40-40L-ERA KO MANTENTZE-KITA
113	DME 375-ERA KO MANTENTZE-KITA
114	PD20P-FPS-PTT PONPARAKO AIR VALVE KITA
115	I12 PERISTALTIKORAKO MAHUKA

PTPAren xede den zerbitzua ahalik eta lasterren exekutatu beharko da, eta lerroz lerro sekuentzialki egingo da; hori horrela, lerro bakarra egongo da zerbitzuz kanpo zerbitzuaren ondorioz.

Adjudikaziodunak inolako ordainik gabe onartzen du gutxienez BI asteko aurrerapenarekin jakinarazten zaion lan-data.



Horregatik guztiagatik, lizitatzailerik kontuan hartuko dute inguruabar hori, eta lan-programa errealista aurkeztuko dute zerbitzurako, premiarik handienari jarraikiz antolatua.

Eskaintzan, adierazitako mantentze-zerbitzuak egiteko behar diren baliabide osagarri guztiak sartuko dira, bai eta hornidura eta material guztiak ere.

Hornidurak barne hartzen ditu GALINDOKO HUArainoko garraioarekin lotutako kontzeptu guztiak (DDP, INCOTERMS 2010en arabera).

3.2 LEGEZTATZEA

Kontratutakoak hala eskatzen badu, kontratista arduratuko da instalazio berriak legeztatze beharrezkoak diren zeregin eta izapide tekniko-administratibo guztiak egiteaz (eskabideak, proiektuak idatzi eta ikus-onestea, ikuskapen ofizialak, etab.). Sortutako gastu guztiak kontratistaren kontura izango dira, eta hark, lanak amaitzean, sortutako dokumentazio guztia emango dio kontratu-zuzendaritzari.

3.3 KONTRATISTAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA ETA TXOSTENAK

Prozesua efizientziaz egiten dela ziurtatzeko, informazioaren berri izan behar da, eta informazioa eguneratua izan; gainera, hura dokumentatu, erregistratu eta artxibatu behar da.

Kontratua ez da amaituko, harik eta eskatutako dokumentazio guztia aurkeztu eta kontratu-arduradunak onartu arte.

3.3.1 INFORMAZIOA

BBUPek kontratistaren esku jarriko du bere esku dagoen dokumentazio guztia, kontratua erraz garatzeko.

Kontratistak konpromisoa hartzen du kontratua garatzeko BBUPetik lortutako informazioa isilpean gordetzeko, eta, bereziki, erabilitako teknologiarik, iturburu-programerik, prozedurerik, software industrialari, plano eta eskemeri, zehaztapenerik, jarraibiderik eta abarri dagokienez. Horiek guztiak inolako aldaketarik egin gabe itzuliko zaizkio BBUPi.

3.3.2 DOKUMENTAZIO PARTIKULARRA

Mantentze-lanak etengabe hobetzeko, kontratistak txosten hau aurkeztu behar du:

3.3.2.1 HILEKO TXOSTENA

Hilero, kontratistak HILEKO TXOSTENA egingo du. Hona hauek izango ditu txostenak:

- Egindako lanak xehatzea, LA kopurua eta ordezkotutako piezen eta orduen kontsumoa zehaztuta.
- Exekutututako unitateen eta egindako lanen ZERRENTA BALORATUA (neurketen eta kontratutako aurrekontuaren arabera), eta ziurtagiria emateko oinarri gisa erabiliko da.
- Kontratu-aurrekontuaren jarraipena.

Hileko txosteneko informazio guztia GMAOn eta/edo erabilera komuneko aplikazio informatikoetan (Word, Access, etab.) sartuko da aldez aurretik, Kontratuaren Zuzendaritzaren jarraibideen arabera.

4. GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK

Kontratistaren antolamendu-egiturak behar beste baliabide izango ditu kontratua behar bezala kudeatzeko (giza baliabideak eta baliabide materialak), eta BBUPi lanak egiaztatzen eta emaitzak kontrolatzen laguntzeko.

Langile guztiek portaera egokia izan beharko dute, behar bezala unifikatuta, txukun eta behar bezala identifikatuta izan behar dira une oro —ageriko lekuan eramango dute identifikazio-txartel pertsonala—.



5. KONTRATUAREN KONDIZIO OROKORRAK

Kontratua agiri honetan adierazitako kondizioak betez egingo da, kontratistaren erantzukizunpean.

Kontratistak kontratuaren xede diren jarduera guztietan aplikatu beharreko legeria, erregelamentazioa eta legezko araudia bete beharko ditu, baita BBUPek ezarritako prozedurak ere.

Jarduteko moduari buruzko edozein zalantza izanez gero, kontratistak kontratu-zuzendaritzara joko du, informazioa biltzeko.

5.1 KONTRATUAREN HASIERA ETA AMAIERA

Erabat debekatuta dago BBUPen instalazioetan edozein jarduera hastea kontratuaren arduradunaren berariazko baimenik gabe.

Kontratuaren indarraldia igarotakoan amaituko da kontratua.

5.2 PROZEDURAK

Enpresa kontratistak bere kabuz eta bitartekoen bidez eramango ditu BBUPen bulegoetara kontratuaren xede diren lan guztiak egiteko behar diren langileak eta baliabide materialak.

Enpresa kontratistak lan guztien plangintza egingo du, eta Aktiboak Kudeatzeko Zuzendariordetzako Plangintza Arloei bidali beharko die. Horiek arduratuko dira lanen behin betiko plangintza egiteaz, edozein motatako jarduerari ekin aurretik.

Enpresa kontratistak onartu egingo ditu kontratuaren arduradunak gorabehera, akats, matxura, larrialdi eta abarren berri emateko ezarritako prozedurak.

5.3 LANEN KOORDINAZIOA

Kontratistari dagokio PTPA honen xede diren lanak askotariko espezialitateetako lanekin koordinatzea, baita zerbitzu osagarrien enpresa hornitzaileenekin ere.

BBUPek kontratatzen dituen enpresek zerbitzuak era sinergikoan eta koordinatuan ematea sustatu eta erraztuko du.

Kontratistaren lanak prozesu-lana edo aldi berean egiten diren "beste" lan batzuk oztopatzen dituenean, kontratuaren arduradunak baimena ematen duenean baino ez da hasiko egiten.

5.4 KONTRATUAREN JARRAIPENA ETA KONTROLA

Kontratu-zuzendaritza kontratu-arduradun baten esku egongo da (BBUPeko plantillako ingeniaria). Arduradun horrek teknikari arduradun baten laguntza (BBUPeko langilea) eta/edo kanpoko laguntza teknikoa izango du. Langile hori arduratuko da kontratua betetzeko zuzendaritza-, jarraipen- eta kontrol-lanez.

Kontratu-zuzendaritzak beharrezkotzat jotzen dituen kontrol-neurriak ezarri ahal izango ditu kontratuaren kondizioak behar bezala betetzen direla ziurtatzeko, eta egindako lanen maila teknikoa egiaztatzeko egokitzen jotzen dituen ausazko ikuskapen guztiak egingo ditu.

Kontratuaren zuzendaritzak eskatzen duenean, enpresa adjudikazioduneko teknikariek presente egon beharko dute lan garrantzitsuak egiten diren bitartean.

PTPA honen xede diren hornidurak, aurretik egindako antzeko jarduketekin kontratatuta egon arren, ez dira eskusiboak eta zabaldu eta hobetu egin daitezke.

Informazio horren guztiaren kopia, idatziz nahiz formatu elektronikoan, bidaliko zaio BBUPi, tratatua izan dadin.



5.5 HARRERA-PROBAK

Kontratuaren arduradunak hornidura osoa edo zati garrantzitsuak edo interesgarriak jasotzeko probak ezarriko ditu, bai eta lanen kalitatea bermatzeko beharrezkotzat jotzen dituen muntaketa-probak ere.

5.6 LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA

Lanak egiteaz arduratzen diren langileek aplikatu beharreko laneko arriskuen prebentzioko legeria, araudia eta erregelamendua oso-osorik beteko dute une oro.

Kontratistari dagokio laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko prebentzio-jarduerak antolatzea, bere jarduera propioak ez ezik, azpikontratutako enpresenak ere bai.

Adjudikaziodunak BBUPeko Laneko Arriskuen Prebentziorako Sailaren betekizun guztiak bete beharko ditu, jarraian zehazten den moduan.

BBUPeko Prebentzio Zerbitzuek baliozkotu beharko dute prebentzio-jarduera guztia.

Betebehar horiek kontratu-izaera izango dute.

5.6.1 ENPRESA KONTRATISTEK EGINDAKO LANETAN LANEKO ARRISKUAK PREBENITZEKO PROZEDURA (AURRETIAZKO EKINTZAK)

Lanak hasi aurretik, bilera bat egingo da. Biler horretan, 31/95 Legearen 24. artikuluan eta 32 bis artikuluan eta 171/2004 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera egin beharreko lanak aztertuko dira, eta obra edo lanerako beharrezkoak diren koordinazio-bitartekoak esleituko dira, lanen arriskugarritasuna, langile kopurua edota nahasitako enpresak kontuan izanik, 171/2004 Errege Dekretuko 14. artikuluekin bat etorritik. Bilkura horretara, gutxienez, kontratu-zuzendariak gain, BBUPeko Prebentzio Zerbitzua eta Enpresa Adjudikaziodunaren Ordezkaria bertaratuko dira.

Biler horretan, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak honako hauek emango dizkio enpresa adjudikaziodunari:

- Lan Kondizioen Arriskuen Ebaluazioa; bertan jasoko da enpresa kontratatutako langileek zer arrisku izango dituzten BBUPeko instalazioetan egindako lanen ondorioz, bai eta arrisku horiek eragotzi edo arintzeko aplikatu beharreko neurriak ere.
- Lan berezietan (lan-eremuagatik edo haren arriskugarritasun bereziagatik), BBUPek enpresa kontratatutari emango dizkio enpresa kontratatutak nahitaez bete beharreko lan-prozedurak eta -jarraibideak.
- BBUPek Larrialdi Plana helaraziko dio enpresa kontratatutari, edo, halakorik ezean, enpresaren lanak garatzen diren instalazioetan larrialdia izanez gero jarraitu beharreko aginduak.

BBUPek honako dokumentu hauek aurkezteko eskatuko dio enpresa adjudikaziodunaren ordezkariari:

- Lanen Arriskuen Ebaluazio Espezifikoak, geldialdian egin beharrekoak. Ebaluazio horretan, BBUPek helarazitako informazioa —aurreko atalean deskribatutakoa— hartuko da kontuan.
- Kontratututako lanen Arriskuen Prebentziorako Plana. Bertan, honako hauek jasoko dira: lanek irauten duten bitartean izango den antolaketa-egitura, esku hartzen duten elementuen erantzukizunak eta eginkizunak, aplikatu beharreko prozedurak eta lanean arriskuen prebentzioa egiteko eskuragarri dauden baliabideak.

Lanak hasi aurretik, enpresa adjudikaziodunak agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

- Prebentzio-antolamenduaren modalitatea (dokumentazio ofizialaren kopia barne).
- Azpikontratazio-erregistroa (hala badagokio).
- Lanetan esku hartzen duten langileen zerrenda.
- Segurtasuneko arduraduna eta/edo Prebentzio Baliabidea izendatzea.
- Prebentzioko osasunaren zaintzaren erregistroa (dokumentazio ofizialaren kopia barne).
- Langileentzako prebentzio-prestakuntza eta -informazioaren erregistroa (dokumentazio ofizialaren kopia barne, halakorik balego).
- Norbera babesteko ekipamenduen entrega-erregistroa (langileek sinatuta).
- Laneko ekipoen erregistroa (dokumentazio ofizialaren kopia barne, halakorik badago).



- Matrikulatutako laneko ekipoen erregistroa (dokumentazio ofizialaren kopia barne).
- Laneko ekipo mugikorren, automotorren edo ez mugikorren erregistroa (dokumentazio ofizialaren kopia barne, halakorik badago).
- Altuerako aldi baterako lanetarako lantaldeen erregistroa (dokumentazio ofizialaren kopia barne, halakorik badago).
- Garabi Mugikor Autopropultsatu erako laneko ekipoen erregistroa (dokumentazio ofizialaren kopia barne).
- Arrisku elektrikoa dakarten lanak egiteko langileen baimenaren/kualifikazioaren erregistroa, 614/2001 Errege Dekretuaren arabera (hala badagokio).
- Partzuergoko instalazioetara sartzeko baimen-eskaera.
- Lanetan erabiliko diren produktu kimikoen erregistroa.

Gainera, lanekin hasi aurretik, honako dokumentu hauek aurkeztuko ditu:

- Gizarte Segurantzaren kotizazio-egoeraren ziurtagiria (lanak irauten duen bitartean hilero emango da).
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintzari egin beharreko kotizazioen TC2 edo ITA buletinak (altan dauden langileen txostena), langileen zerrendan zerrendatutako pertsonak jasotzen dituztenak. Halakorik ezean, Gizarte Segurantzako alta-agiriak (langile sartu berrien kasuan) edo, hala badagokio, autonomoen ordainagiria. Taloiak hilero entregatuko dira.
- Erantzukizun Zibileko aseguru-polizaren kopia, eta primak ordainduta izatearen egiaztagiria.

AZPIKONTRATATUZ GERO, AURREZ ADIERAZITAKO DOKUMENTAZIOA ESKATU BEHAR ZAIE OBRAN ESKU HARTZEN DUTEN ENPRESA GUZTIEI.

Gainera, hasierako bileran:

- Prebentzio-neurri espezifikoak ezarriko dira arrisku bereziko lanetarako, hala badagokio. Kontratu honen xede diren lanen barruan, espazio konfinatuetan, altuerako lanetan eta abarretan lan egingo da, eta prebentzio-neurri espezifikoak eskatuko dira lanak egiteko. (prebentzio-baliabideen presentzia, prebentzio-prestakuntza gehigarria, babes-ekipamendu gehigarriak, gasak neurtzeko ekipoak, ihes-ekipoak, etab.)
- Edonola ere, modu bateratuan identifikatuko dira kontratu honetan parte hartzen duen enpresak eta BBUPEk aldi berean eta batera egindako ekintzaren ondorioz sortu edo aldatu daitezkeen arriskuak.

5.6.2 ENPRESA KONTRATISTEK EGINDAKO LANETAN LANEKO ARRISKUAK PREBENITZEKO PROZEDURA (OBRA EDO LANA EGITEA)

- BBUPEk aldizkako bilerak egingo ditu kontratatutako enpresetako ordezkariekin, kontratatutako prebentzio-arloko teknikariekin, kontratuaren arduradunarekin eta BBUPEko Prebentzio Zerbitzuarekin, eta bilera horietan jorratutako gaien akta jasoko da; lanen ezaugarrien arabera.
- Lanen izaera dela medio, hala behar denean, lanok EXEKUTATU aurretik bilerak deituko dira, prebentzio arloan beharrezkoak diren neurri espezifikoak zehazte aldera (prebentzio-baliabideen presentzia, prebentzio arloko prestakuntza osagarria, babeserako ekipamendu osagarriak, etab.). Aurretiko bilera horietara bertaratuko dira kontratatutako enpresetako Arduraduna, kontratatutako Prebentzio arloko Teknikariak, kontratutako Zuzendaria eta BBUPEko Prebentzio Zerbitzua.
- Enpresa adjudikaziodunaren erantzukizuna izango da lanek eragindako eremu guztiak behar bezala seinaleztatzea.
- Aldizka segurtasun-ikuskapenak egingo dira.
- Istripuren bat gertatuz gero (alde batera utzita bazarik eragiten ote duen), enpresa kontratistak BEREHALA jakinaraziko dio kontratataren kontrol- eta jarraipen-arduradunari (kontratuaren arduraduna), eta azken horrek, berriz, BBUPEko Prebentzio Zerbitzuari.

Enpresa kontratistak istripua ikertuko du, eta nola ikerketa-txostenaren hala istripuaren parte elektronikoaren kopia bat bidaliko du Kontratu Zuzendaritzara, eta beste kopia bat BBUPEko Prebentzio Zerbitzura, beharrezko diren neurriak har daitezen.

Enpresa kontratistek, azpikontratistek eta langile autonomoek konpromisoa hartuko dute BBUPEk zehaztutako jokabide- eta jardura-arauak eta Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legea une oro errespetatzeko.



5.7 INGURUMENA

Lanak egiteaz arduratzen diren langileek ingurumenari buruz aplikatu beharreko legeria, araudi eta erregelamentazio osoa beteko dute une oro.

Kontratistari dagokio ingurumenaren arloko jarduerak antolatzea, bai berarenak, bai azpikontratatzan dituen enpresenak.

Kontratistak jarraian zehazten diren BBUPeko Iraunkortasun, Teknologia eta Berrikuntzako Zuzendariordetzaren kondizio guztiak bete beharko ditu, eta, behar izanez gero, horiek betetzen direla erakusten duten ebidentziak eman.

Ingurumenarekin lotutako jarduera guztiak BBUPeko Iraunkortasun, Teknologia eta Berrikuntzako Zuzendariordetzak baliozkotu beharko ditu.

Betebehar horiek kontratu-izaera izango dute.

5.7.1 GARBIKETA ETA HONDAKINAK

Enpresa kontratistak garbi eta egoera onargarrian mantendu beharko ditu kontratu honen xede diren lanak egiteko erabiltzen dituen instalazioak eta/edo esparruak.

Kontratistaren ardura da bere lanak egin bitartean sortutako hondakin guztiak kudeatzea, eta berariaz debekatuta dago era guztietako hondakinak BBUPen instalazioetan ezabatzea edo biltzea. Hondakinak indarreko legeria aplikagarriaren arabera kudeatuko dira, eta BBUPen eskura egongo dira hondakinak behar bezala kudeatzen direla frogatzen duten egiaztagiriak.

Aipatutako betekizunaren bat betetzen ez bada, kontratu-arduradunak hirugarren bati emango dio betebehar horiek egiteko ardura. Sortutako gastuak dagokion ziurtagiritik deskontatuko zaizkio kontratistari.

5.8 KALITATEA ZIURTATZEA

Lizitatzailerak bere erakundeak kontratuaren kondizioak betetzeko duen gaitasuna ziurtatuko du.

Gaitasun hori ISO 9001:2008 ziurtagiriarekin edo goragoko beste batekin bermatuko da.

Ziurtagiririk izan ezean, BBUPek egokitzen jotzen dituen kontrolak onartuko ditu lizitatzailerak, eta haien kostua bere gain hartuko du.

Betebehar horiek kontratu-izaera izango dute.

5.9 ZIURTAGIRIAK

Hilero, egindako horniduren edo zerbitzuen ziurtagiria egingo da, entregatutako materialei dagozkien albaranen ZERRENDA BALORATUA oinarri hartuta.

Ziurtagiri partzialak behin-behinekoak baino ez dira izango, kontu onez eginak, eta ez dakarte berekin ziurtagirietan jasotako lanak onartzea.

Amaitu gabeko lanek, partzialki amaitu direnek edo gaizki egindakoek hasierako prezioaren proportzio berean murriztu ahal izango dute.

Alderdiek eztabaidatu eta onartu beharko dituzte prezio kontrajarriak, gauzatu aurretik.

Kontratu-zuzendaritzak aldeztu aurretik onartu ez dituen lan gehigarriak edo aurreikusitakoetan egindako aldaketak ez dira ordainduko.



6. KONTRATUAREN BERARIAZKO KONDIZIOAK

“Ez da aplikagarria”

7. LIZITATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Aurkeztu beharreko Dokumentazio teknikoa administrazio-klausulen agiriko dagokion atalean zehaztutakoa da.

Bilbo, 2024ko abenduaren 17a

Javier Ruiz de la Hera

Mantentze eta Saneamendu Arloko arduraduna